

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA*Obra txikiei buruzko udal ordenantza*

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako, jakinarazten da Udalbatzak, 2015eko martxoaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuela behin betiko onespena ematea Astigarragako udalerrian egin nahi diren obra txikiei buruzko Udal ordenantza arautzaileari.

Aipameneko Ordenantzaren testu bateginaren eduki osoa argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Astigarraga, 2015eko martxoaren 31.—Andoni Gartzia Arruabarrena, alkatea. (3129)

Astigarragako udalerrian egin nahi diren obra txikiei buruzko udal ordenantza.

ZIOEN AZALPENEA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentarauak, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoak (Zerbitzuen Zuzentaru bezala ezagutzen denak), hainbat xedapen orokor onartu zituen, horien helburua zelarik alferreko edo neurri gabeko trabak kentzea edonon kokatzeko askatasunaz baliatzeko.

Zuzentaruak onartu zenetik, Estatuak eta Autonomia Erkidegoak ere arau batzuk onartu dituzte euren barne-araudietan hura txertatzeko (Estatuan 17/2009 eta 25/2009 legeak eta Autonomia Erkidegoan 7/2012 Legea) eta horrek eragin nabarmena du hirigintza-lizentziak emateko udal eskumenetan. Krisi finantzario eta ekonomikoaren esparruan ere zenbait neurri hartu dira, eragin zuzena dutenak lizentziak emateko araubide administratiboan (2/2011 Legea, ekonomia iraunkorrarena; 12/2012 Legea, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzekeo premiazko neurriak ezartzeari buruzkoa). Arau horiek guztiek helburu bat dute, eta da orain arte alde aurreko lizentzia lortu beharra zeukaten ahalmenak gauzatzeko tramitazio administratiboa erraztu eta arintzea.

Astigarragako hiri antolaketa Plan Orokorrek ere (2.7.1 artikuluan) aurreikusi du eraikinen barruan instalazioak konpontzeko edo berritzatzeko obren kasuan, ez dela lizentziarik behar, baldin eta obrek segurtasuneko baldintza orokorrei edo sare orokorreko hartuneei eragiten ez badiete.

Plan Orokorreko aurreikuspenak garatuz eta helburua gero eta administrazio arinagoa eta eraginkorragoa antolatzea izanik, beharrezkotzat jo da Obra Txikiak egiteko Ordenantzaren edukina garatzea.

Astigarragako Udalak egoki irizten dio obra txikietarako lizentzien eskariak, tramitazioak eta kontrolak arautzeari.

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA*Ordenanza municipal para regular las obras menores*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos, se hace público que en el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de marzo de 2015, se acordó aprobar definitivamente la Ordenanza municipal para regular las obras menores en el municipio de Astigarraga.

Se procede a la publicación íntegra del contenido del texto de la Ordenanza referida.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 31 de marzo de 2015.—El alcalde, Andoni Gartzia Arruabarrena. (3129)

Ordenanza municipal para regular las obras menores en el municipio de Astigarraga.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior, comúnmente conocida como Directiva de Servicios, aprobó una serie de disposiciones generales que tienen como objetivo eliminar obstáculos innecesarios y desproporcionados para facilitar el ejercicio de la libertad de establecimiento.

Desde la aprobación de la Directiva, el Estado y la Comunidad Autónoma han aprobado normas para su transposición (Leyes estatales 17/2009 y 25/2009; Ley autonómica 7/2012) con incidencia relevante en las competencias municipales sobre otorgamiento de licencias urbanísticas. En el marco de la crisis financiera y económica también se han aprobado medidas que afectan al régimen administrativo de otorgamiento de licencias (Ley 2/2011 de Economía Sostenible, Ley 12/2012 de medidas urgentes para liberalizar el comercio y determinados servicios). Todas estas normas van encaminadas a simplificar y agilizar la tramitación administrativa para el ejercicio de facultades sometidas hasta ahora a la obtención de licencias previas.

El propio plan general de ordenación urbana de Astigarraga (artículo 2.7.1) prevé que no será precisa licencia para ejecutar, en el interior de los edificios, obras de reparación o renovación de instalaciones que no afecten a sus condiciones generales de seguridad o a las acometidas a las redes generales.

En desarrollo de las previsiones del plan general y con el objeto de hacer una administración cada vez más ágil, eficaz y eficiente, resulta requisito indispensable el desarrollo de la Ordenanza para llevar a cabo Obras Menores.

El Ayuntamiento de Astigarraga entiende adecuado regular la solicitud, tramitación y control de la ejecución de las licencias de obra menor.

I.TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

1. Gauzatzeko edo egiteko Astigarragako Udalaren alde zurreko lizentziarik behar ez duten obra txikiak bideratzeko eskariak, tramitazioak eta hirigintza lizentzien exekuzioaren gaineko kontrola arautzea.

2. Aldez aurreko lizentzia eskatu beharrik ez izateak ez du salbuesten indarrean dagoen hirigintza-araubidera eta irisgarritasunari buruzko legedira egokitu beharretik, ez eta aplikagarri zaion beste edozein araubideren debeku eta mugak errespetatzetik ere. Obren jakinerazpena aurkezteak ez du legitimatuko udal hirigintza planeamenduaren eta ordenantzaren aurkako obrarik. Obra horien aurrean Udalak eskumen hauek izango ditu: ikuskatzekoa, egiaztatzekoa eta kontrolak egitekoa, hirigintza-araubidea berreskuratuzkoa eta legeetan ezarritako zigorrak jartzekoa.

2. artikulua. Prozeduraren arau orokorrak.

1. Ordenantzak araututako kasuetan, beharrezkoa izango da aldez aurretik Udalarari jakinaraztea, beti ere ondorengo artikuluetan adieraziko diren baldintzetan.

2. Jakinerazpena aurkezteak (eskatzen den dokumentazioarekin batera) gaitu egingo du obra txikia gauzatzeko edo hasteko, ondorengo tramiteen zain egon beharrik gabe, Udalak esleitura dauzkan egiaztatze, kontrol eta ikuskapen eskumenak kaltetu gabe.

3. artikulua. Zergak.

Jakinerazpena aurkeztearen bidez egiten diren obrak zerga-izango dira, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen ondorioetarako.

4. artikulua. Interpretazioa.

Alkatetzari eta hirigintza arloko udal zerbitzuei dagokie ordenantza honen interpretazioa egitea. Hori formalizatuzko barnejarrabide batzuk jarriko dira eta horiek Udalaren web orrian argitaratu ahalgo dira, duten garrantziaren arabera eta interpretazioak izan dezakeen interes orokorra kontuan hartuta.

5. artikulua. Baldintzak.

1. Obren gauzapena aurretiko jakinarazpeneko araubidearen pean egoteak ondorioak ekarriko ditu Udalaren eta jarduketan dagokion pertsonaren artean, baina ez ditu aldatuko haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

2. Aurretiko jakinarazpeneko araubidearen bidezko obraren gauzapenaren zilegitasuna lortuzat joko da beti, jabetza eskubidea salbu utzita eta hirugarrenak kaltetu gabe.

3. Titularrak udal zerbitzuen eskura izango du izapidetutako aurretiko jakinarazpena, eta zerbitzu horietako langileek obran sartzen utziko die, araudi aplikagarria betetzen den ikuskatu eta egiaztatzeko.

II OBRAK

6. artikulua. Aurretik udal lizentziarik behar ez duten obrak.

1. Orokorrean obrak egiteko aurretiko udal lizentzia lortu beharretik salbuetsita egongo dira, aurkako udal irizpide arrazoi-tua ez bada, jarduera arruntak direnak eta garrantzi urbanistiko, eraikuntza-tamaina eta zailtasun tekniko eskasa dutenak; aldatetarik eragingo ez dutenak eraikinaren funtzioan etxebizitzaren edo lokalen kopuruan. Halaber, obra horiek ez dituzte eraikinaren egitura (pilareak, habeak, gapirioak, ea.), kanpo diseinua,

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

1. El objeto es regular el control de las solicitudes, tramitaciones y licencias urbanísticas de obra menor que para su ejecución y desarrollo no precisen de licencia municipal previa.

2. La no exigencia de licencia previa no eximirá de la obligación de ajustar las actuaciones a la normativa urbanística vigente y de la normativa relativa a la accesibilidad, ni de respetar las prohibiciones y límites de cualquier normativa que le sea de aplicación. La presentación de notificación no legitimará obras y usos contrarios al planeamiento y ordenanzas urbanísticas municipales. El Ayuntamiento conservará respecto a estas actuaciones las potestades de inspección, de verificación y control, de restauración de la ordenación urbanística y de sanción establecidas en las leyes.

Artículo 2. Reglas generales de procedimiento.

1. En los supuestos regulados por la ordenanza el inicio de cada tipo de actuación requerirá la previa notificación al Ayuntamiento en los términos que se indicarán en los artículos siguientes.

2. La presentación de la notificación (junto con la documentación adicional exigible para cada tipo de actuación) habilitará para su ejecución o inicio, sin tener que esperar a posteriores trámites, sin perjuicio de las competencias municipales de verificación, control e inspección.

Artículo 3. Tributos.

1. Las obras que se realicen mediante notificación devengarán los tributos correspondientes, de conformidad con lo que se establezca en las ordenanzas fiscales.

Artículo 4. Interpretación.

Corresponde a la Alcaldía y a los servicios del área municipal de urbanismo la interpretación de la presente ordenanza. Ello se formalizará a través de instrucciones internas que podrán ser publicadas en la página web del Ayuntamiento en función de su relevancia y del presumible interés general de la interpretación.

Artículo 5. Condiciones.

1. El sometimiento de la ejecución de las obras al régimen de notificación producirá efectos entre el Ayuntamiento y la persona a cuya actuación se refieran, pero no alterarán las situaciones jurídicas privadas entre éste y las demás personas.

2. La legitimación para la ejecución de la obra por el régimen de notificación, se entenderá siempre obtenida dejando a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

3. La persona titular deberá tener disposición de los servicios municipales la notificación diligenciada facilitando el acceso a la obra al personal de dichos servicios, para inspecciones y comprobaciones sobre el cumplimiento de la normativa aplicable.

II OBRAS

Artículo 6. Obras para las que no se exigirá licencia municipal previa.

1. En general se dispensará de la obligación general de obtener licencia municipal previa para ejecutar obras en aquellos supuestos, salvo criterio municipal razonado, de actuaciones ordinarias y escasa trascendencia urbanística, entidad constructiva y dificultad técnica; que no supongan alteración del volumen, del uso objetivo, del número de viviendas y locales, ni afecten a la estructura (pilares, vigas, solivos, etc.) o al diseño

bizigarritasun baldintzak edo eraikinaren edo instalazioaren segurtasuna ukituko. Ez dute tratamendu hori jasoko Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearekin bat etorritik eraikuntza-proiektua behar dutenak, edo aurretiko lizentzia eskatzen duen jarduera edo instalazio sailkatua jartzeko egiten direnak.

2. Horrelako obretan, obrako udal lizentziaren alde aurreko eskaeraren ordez, obren jakinerazpen bat aurkeztu ahaliko da, hirigintza arloak adierazitako zehaztapen eta baldintzekin.

Argibide modura (eta ez zehatz-mehatz) ondoren deskribatutako obrak sartzen dira, baldin eta egiturazko elementurik aldatzen ez bada:

a) Etxebizitza eta lokaletako barne-berrikuntza partziala. Atal honetan sartzen dira, esate baterako, akaberak ordezkatu eta/edo aldatzea, barruko instalazioak (argindarra, ura, gasa) eta arotzeria aldatzea.

b) Kanpoko arotzeria aldatu eta/edo ordezkatzea (leihoak, barandak) betiere ezaugarri guztiak bere horretan gordetzen badira; ez ordea balkoien itxiturak.

c) Teilatua eta teilatu laua konpontzea.

d) Teilatu-hodiak eta zorrotzen aldatzea.

e) Fatxadak pintatzea, jatorrizko kolore beraz pintatzen badira.

f) Etxebizitza eta lokaletan hondakinak kendu eta hustea.

g) Segurtasunerako azpiegituren baldintzak edo sare nagusietarako hartuneak ukitzen ez dituzten instalazioen konponketa edo berritzea.

h) Etxebizitzaren barneko ateak, leihoak berritzea, azulejoak jartzea, zoladurak eta abar, baita osasun-elementuak ere (bainuontzia, komuna, bideta, konketa).

i) Telefonika edota Iberdrola konpainiak egin beharreko zuloak, kanalizazioak eta konexioak, udalerriko alde jakin batzuetan bideratzen diren obrekin zerikusia baldin badute eta, alde aurretik, Udal Teknikariak obrak horiek xehetasunez aurkeztu baldin baditu.

3. Obra txiki kontzeptutik at gelditzen dira, aplikatu beharreko arautegiaren arabera ordenaziotik kanpora kalifikaturiko eraikinetan eta izaera historiko-artistikoa dutenetan bideratu beharreko lanak eta lokaletako lehen egokitzapen lanak.

4. Dena den, eraikinen barruan instalazioak konpontzeko edo berritzatzeko obren kasuan, ez da lizentziarik behar, baldin eta obrek segurtasuneko baldintza orokorrean edo sare orokorreko hartuneen eragiten ez badiete. Horrez gainera, ez da lizentziarik behar lurzoruak, sabaiak eta paramentuak bukatzeko konponketa eta berritzatzeko obrak egiteko; betiere, obra horiek ez badiete eragiten, egiturazko elementuei, ez eta kanpoko fatxadeari ere. Egurrezko egitura duten etxebizitzetan barne espazioaren banaketa aldatzeko, lizentzia beharrezkoa izango da.

5. Aipaturiko edozein obra bideratzeko orduan beharrezkoa baldin bada bide publikoa okupatzea, horretarako baimena eskatu behar da.

6. Bide publikoan edukinontzi bat behar denean, obra txikia bideratzeko komunikazioarekin batera aurkeztu beharreko eskaria, besterik gabe jakinarazi behar zaio Udalari, horren berri izan dezan.

Edukinontzia egokitzeko beharra jakinarazten denetik 7 egun igarotzen baldin badira ezezkorik jaso gabe, baimendu egingo da bide publikoan edukinontzi bat egokitzeko eskaria.

exterior o a las condiciones de habitabilidad o seguridad del edificio o instalación. No tendrán este tratamiento las obras que requieran de proyecto de edificación conforme a la Ley de Ordenación de la Edificación, o las que se ejecuten para implantar una actividad o instalación clasificada que precise de licencia previa.

2. En este tipo de obras se podrá sustituir la previa petición de licencia municipal de obra por la presentación de una notificación, con las precisiones y requisitos que señale el área de urbanismo.

A título enunciativo (no exhaustivo) se incluyen los tipos de obra que se describen a continuación y siempre que no se modifiquen elementos estructurales:

a) Reforma interior parcial de viviendas y locales. Entran dentro de este apartado actuaciones tales como la sustitución y/o modificación de acabados, instalaciones interiores (electricidad, agua, gas), sustitución de carpinterías.

b) Cambio y/o sustitución de carpintería exterior (ventanas, barandillas), siempre que se mantengan todas las características; en cambio, no se contempla los cierres de balcón.

c) Reparación de cubiertas y azoteas.

d) Sustitución de canalones y bajantes.

e) Pintado de fachadas, manteniendo el color anterior.

f) Desescombros y vaciado de viviendas y locales.

g) Reparación o renovación de instalaciones que no afecten a sus condiciones generales de seguridad o a las acometidas a las redes generales.

h) Cambio de puertas y ventanas interiores, colocación de azulejos, pavimentos, etc. y elementos sanitarios (bañera, inodoro, bidé, lavabo).

i) Calas, canalizaciones y conexiones a realizar por Telefónica y/o Iberdrola, únicamente en relación con aquellas obras que correspondan a determinadas zonas del municipio y que hayan sido detalladas, previamente, por el Técnico Municipal.

3. Quedan exceptuadas del concepto de obras de pequeña entidad aquellas obras que se realicen en edificios calificados como fuera de ordenación de acuerdo con la normativa que le sea de aplicación, así como aquellos de carácter histórico-artístico y el primer acondicionamiento de locales.

4. Sin embargo, no será precisa licencia para ejecutar, en el interior de los edificios, obras de reparación o renovación de instalaciones que no afecten a sus condiciones generales de seguridad o a las acometidas a las redes generales, y aquellas otras de reparación o renovación de terminaciones de suelos, techos o paramentos, que no afecten a los elementos estructurales o a las fachadas exteriores. La modificación de las distribuciones de los espacios interiores en edificios con estructura de madera, estarán sujetos a licencia.

5. En caso de que para la realización de cualesquiera de las mencionadas obras, sea preciso la ocupación de la vía pública, habrá de solicitarse autorización para dicho acto.

6. La ocupación de la vía pública mediante contenedor, cuando su instalación sea solicitada conjuntamente con la comunicación de obra de pequeña entidad, requerirá única y exclusivamente al Ayuntamiento a fin de ponerla en su conocimiento.

Transcurridos 7 días desde la fecha de conocimiento sin comunicación en sentido contrario se entenderá concedida la autorización de ocupación de la vía pública mediante contenedor.

7. artikulua. Obra txikien notifikazio baldintzak.

1. Obrak hasi aurreko notifikazioa Udaleko informazio bulegoan emandako inprimaki normalizatuan aurkeztuko da edo, bestela, inprimakian eskatutako informazio bera jasotzen duen beste edozein dokumentutan.

2. Notifikazioan, egin behar den obra deskribatuko da, eta zehaztu egingo da ordenantzan sartutako obren artetik zein motatakoa den. Sartu egingo dira, baita ere, espedientea izapidetzeko eta baloratzeko behar diren datu guztiak (sustatzailearen datuak, obren lekua, aurrekontua, obrak hasi eta bukatzeko aurreikusitako egunak). Notifikazioarekin batera, egin beharreko obraren arabera beharrezkoa den dokumentazio gehigarria ere erantsiko da.

3. Hala behar badu, edukiontzia bide publikoan ustez emango dituen egunak.

4. Data eta eskaria egiten duen pertsonaren sinadura.

5. Udaleko Erregistro Orokorrek obren lizentzia emateko dokumentu bat «Obren jakinerazpena izenekoa» itxuratuko du; dokumentuak hiritarren eskaria jasoko du batetik eta Administrazioak horren berri berehala izan duela jasoko du bestetik.

Udalak obraren berri izateak aukera ematen dio hiritarri azken honek aurkezturiko obrari ekiteko, betiere bideratu beharreko obra Ordenantza hauetan zehazten diren obra txiki multzoaren baitan jasotzen bada. Nolanahi ere, udal- eskudunak obra ikuskatzeko eskubidea du eta, hala behar badu, obra hori ez bideratzeko agindua eman lezake.

Udalari obra egiteko asmoa jakinarazi eta 7 egunen buruan aurkako erantzunik jasotzen ez badu, dagokion hirigintza- lizentzia onartzen zaiola ulertzen da.

6. Obren neurriek ez dituzte sekula Udalari jakinarazirioak gaindituko, eta hirigintza mailako lege-haustetzat hartuko dira gehiegikeriak oro.

7. Obrak bideratzen ari direnean aldaketaren bat egiteko asmoa baldin badago, Udalari eman behar zaio horren berri, beharrezkoa izanik jakinarazpen horrek aurreko ataletan ezarritako baldintzak betetzea.

8. Hirigintza, Ingurugiro eta Obra eta Zerbitzuerako Udal Teknikariak edo Udaltzainak azaldu ahal izango da obretara, lan horiek emaniko obra txikiko lizentziari egokitzen ote zaizkion egiaztatzeko xedean. Hartara, obrak bideratzen diren lekuan gordeko da Obren jakinerazpena izeneko dokumentua, benetan obra horiek eta ez besterik egiten ari direla egiaztatzearen.

9. Obra txikiak egiteko lizentzien kontzesioan hilabeteko epea zehazten da obrei ekiteko eta hiru hilabeteko epea obra horiek guztiz amaitzeko. Eskaria egiten duen pertsonak obrei ekiteko baimenaren berri jasotzen duen egunetik aurrera jarriko dira indarrean epe horiek.

Zehazturiko epe horiek amaituta, baliogabe geratuko da Udalak azalduko ezagutza-agiria, eta interesatuak beste komunikazio edo jakinarazpen bat aurkeztu beharko du obrei ekiteko edo obrak amaitzeko.

10. Obrak bideratzean, derrigorrez konpondu beharko ditu bide publikoetan eta aldameneko espazioetan sor litezkeen kalteak, eta txukun mantendu behar ditu inguruak.

11. Lizentziaren eskariaz eta eskuratzear gainera, indarrean dagoen legeriaren arabera arauzko baimenak lortu behar dira.

12. Ordenantza Fiskaletan zehaztuko dira zergen eta tasen zenbatekoak.

13. Lanetan sortutako hondakinen kudeaketa egokia izan dela ziurtatzeko, obra bukatu ondoren, dagokion Garbiguneko albaranek aurkeztu beharko dira.

Artículo 7. Requisitos de la notificación de obras menores.

1. La notificación al inicio de las obras se presentará en impreso normalizado que será facilitado en la oficina de información del Ayuntamiento o en cualquier otro documento que contenga, como mínimo, la misma información requerida en el impreso.

2. En la notificación se describirá la obra a realizar y se especificará en cual de los tipos de obra incluidos en la ordenanza se encuentra. Se incluirán también todos los datos necesarios para tramitar y valorar el expediente (datos de la persona promotora, lugar de las obras, presupuesto, fechas previstas de inicio y final de las obras). Junto con la notificación se acompañará la documentación adicional que sea necesaria en función de la obra a realizar.

3. En su caso, fechas previstas de ocupación de la vía pública mediante contenedor.

4. Fecha y firma de la persona que lo solicite.

5. Se elaborará por el Registro General del Ayuntamiento un documento de otorgamiento de la licencia denominado - Conocimiento de obra- que recogerá en un primer cuerpo la declaración del ciudadano y en un segundo cuerpo el acto de conocimiento de la Administración, de forma inmediata.

El acto de conocimiento faculta al ciudadano para la realización de la actuación intervenida declarada, siempre y cuando el objeto de la obra se corresponda con los supuestos de obras de pequeña entidad contemplados en esta Ordenanza, sin perjuicio de la potestad municipal de revisar la misma y en su caso no autorizarla.

Transcurridos 7 días desde la fecha de conocimiento sin comunicación en sentido contrario se entenderá concedida la licencia urbanística.

6. Las dimensiones de las obras no excederán de las comunicadas, considerándose como infracción urbanística cualquier extra limitación de las mismas.

7. Cuando se pretenda introducir modificaciones durante la ejecución de las obras, se deberá comunicar el hecho al Ayuntamiento, debiendo cumplir dicha notificación los requisitos exigidos en los apartados anteriores.

8. Cualquier Técnico Municipal o Agente de la Policía Local tendrá libre acceso a las obras, con el fin de comprobar que las obras se ajustan a la licencia de obras de pequeña entidad concedida. Por ello el documento de -Conocimiento de obra- será depositado en el lugar de la obra, a fin de que pueda ser examinado al tiempo de efectuarse la comprobación.

9. En las concesiones de la licencia de obras de pequeña entidad se establece un plazo de un mes para el inicio y de tres meses para la completa realización de las obras. Dicho plazo comenzará a contar a partir de la notificación del acuerdo al solicitante.

Transcurridos estos plazos perderá todo valor el acto de conocimiento realizado por el Ayuntamiento debiendo el interesado proceder a nueva comunicación para iniciar o realizar las obras.

10. En la realización de los trabajos se estará obligado a reparar los desperfectos que como consecuencia de las obras se originen en las vías públicas y demás espacios colindantes, y a mantener éstos en condiciones de limpieza.

11. La solicitud y obtención de la licencia será entendida sin perjuicio de las demás autorizaciones que sean preceptivas conforme a la legislación vigente.

12. La cuantía de los impuestos y tasas será la fijada en las Ordenanzas Fiscales.

13. Para garantizar la correcta gestión de los residuos de obra generados, tras finalizar las obras, se deberán de presentar los albaranes del Gabigune correspondiente.

II TITULUA

IKUSKAPEN TEKNIKO ETA OBREN GAUZAPEN KONTROLA

I. KAPITULUA. XEDEA ETA EDUKIA

8. artikulua. Oinarria, xedea eta edukia.

«Jakinerazpena» behar duten obra txikien ikuskapenak honako xedea dauka:

Obrak jakinerazpenean adierazitako baldintzei jarraituz egiten direla egiaztatzea. Baldintza horiek, bestalde, Ordenantza honi lotu behar zaizkio.

9. artikulua. Udal kontrol eta ikuskapen araubidea.

1. Udal zerbitzu teknikoek indarreko legediak eman dizkien ikuskaritza eginkizunak beteko dituzte hiri legedia betetzen dela egiaztatzeko, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 217 eta 218. artikuluek emandako esku-menaren arabera.

2. Interesdunak Udalaren eskura eduki beharko du jakinarazpenaren kopia, behar bezala izapidetuta, eta udal zerbitzuei obran sartzen utzi beharko die, egokiak deritzeten ikuskapen eta egiaztapen lanak burutzeko.

3. Egiaztapenaren ondorioz ikusiko balitz obrak egiteko gaitasuna eragin zuten agirietan jasotako datuak faltsuak direla, obra oker burutzen ari dela, edo hari buruzko antzeko beste edozein inguruabar, Udalak antzemandako gabezien arabera egokiak diren neurriak hartuko ditu, aplikatu beharreko hirigintza araudiaren arabera.

II. KAPITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

10. artikulua. Arau haustea eta zehapenak.

Udalari jakinarazpenaren bidez ezagutarazitako obra txikien ondorioz egindako arau-hausteei eta haien kalifikazioari eta ezar litezkeen zehapenei dagokienez, indarreko hirigintza legediak xedatutakoari jarraituko zaio.

11. artikulua. Erantzukizuna.

1. Arau-hausteen erantzuleak sustatzailea, eraikitzailea eta teknikari zuzendariak izango dira.

2. Teknikari zuzendariari jarritako zehapenak haien elkargo profesionalari jakinaraziko zaizkio haien berri izan dezan.

12. artikulua. Prozedura.

Hiri arau-haustea zehatzeko eskumena Astigarragako Udalak gauzatuko du, legez ezarritako prozeduraren bidez. Prozedura horretan, edonola ere, entzunaldia emango zaio interesdunari.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau hamabost egunen buruan sartuko da indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, Toki Araubideen Oinarriak Aratzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Xedapen Gehigarria.

Bakarra. Agiri ereduak.

Eskumena eman zaio Alkatezari Ordenantza hau garatzeko behar diren agiri eredu normalizatu guztiak onartu eta aldatzeko.

II TITULUA

INSPECCIÓN TÉCNICA Y CONTROL DE LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS

CAPÍTULO I. OBJETO Y CONTENIDO

Artículo 8. Base, objeto y contenido.

La inspección de las obras menores sometidas a notificación tiene el siguiente objetivo:

Comprobar que las obras se realizan según las condiciones que constan en la notificación, las cuales deberán ajustarse a la presente Ordenanza.

Artículo 9. Régimen de Control e inspección municipal.

1. Los Servicios Técnicos municipales llevarán a cabo las funciones inspectoras que les otorga la legislación vigente a fin de comprobar el cumplimiento de la legalidad urbanística, en virtud de las facultades que les otorgan los artículos 217 y 218 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

2. La persona interesada deberá tener a disposición del Ayuntamiento copia de la notificación, debidamente diligenciada, así como permitir el acceso a la obra de los Servicios Municipales, para realizar las actuaciones de inspección o comprobación que estimen convenientes.

3. Si como consecuencia de tal comprobación se constata la falsedad de los datos contenidos en la documentación que dio lugar a la facultad de realización de las obras, ña incorrecta ejecución de la obra, o cualquier otra circunstancia similar relativa a la misma, el Ayuntamiento adoptará las medidas que resulten pertinentes en función de las deficiencias detectadas, de conformidad con la normativa urbanística de aplicación.

CAPÍTULO II. RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 10. Infracciones y sanciones.

En todo lo relativo a las infracciones cometidas como consecuencia de las obras menores puestas en conocimiento del Ayuntamiento mediante el acto de notificación, así como su calificación y las sanciones que puedan imponerse, se estará a lo que disponga la legislación urbanística vigente.

Artículo 11. Responsabilidad.

1. Serán responsables de las infracciones el/la promotor, el/la constructor/a y los/las técnicos/as directores/as.

2. Las sanciones que se impongan a los técnicos/as directores/as se comunicarán al Colegio Profesional respectivo para su conocimiento.

Artículo 12. Procedimiento.

La potestad sancionadora por la comisión de infracciones urbanísticas se ejercerá por el Ayuntamiento de Astigarraga mediante el procedimiento legalmente establecido, en el que, en todo caso, se dará audiencia a la persona interesada.

Disposición Final.

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días contados a partir del día siguiente a su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Disposición adicional.

Única. Modelos de documentos.

Se faculta a la Alcaldía para la aprobación y modificación de cuantos modelos normalizados de documentos requiera el desarrollo de estas Ordenanzas.

Xedapen Iragankorra. Bakarra.

Udal ordenantza hau indarrean sartu aurretik hasitako baimen prozedurak eskabidea aurkeztu zen unean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

Arestiko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, interesdunak, ebazpenaren aurretik, eskabideari amore eman eta ordenantza berria aplikatzea hauta dezake.

Disposición Transitoria. Única.

Los procedimientos de autorizaciones iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de esta ordenanza municipal, se tramitarán y resolverán conforme a la normativa vigente en el momento de la presentación de la solicitud.

No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la persona interesada podrá, con anterioridad a la resolución, desistir de solicitud y optar por la aplicación de la nueva ordenanza.

OBREN JAKINERAZPENA/CONOCIMIENTO DE OBRAS
Obra txikiak/Obras de pequeña entidad

ESKATZAILEA / SOLICITANTE:

Izen-Abizenak / Nombre y apellidos:		NAN / DNI:
Jakinarazteko helbidea / Domicilio para notificación:		PK/CP
Herria / Población:	Tel./Fax	E-mail

Bere izenean / En su propio nombre

Honako hau ordezkatzuz/ En representación de:

Izen-Abizenak / Nombre y apellidos:		NAN / DNI:
Jakinarazteko helbidea / Domicilio para notificación :		PK/CP
Herria / Población:	Tel./Fax	E-mail

LANEI BURUZKO DATUAK/ DATOS DE LAS OBRAS:

Kokapena- Ubicación

Helbidea/Dirección

OBRA EGURREZKO EGITURA DUEN ERAIKIN BATEAN EGITEN DA?

LA INTERVENCIÓN SE REALIZA EN UN INMUEBLE CON ESTRUCTURA DE MADERA?

BAI EZ
SI NO

LANEN AZALPENAK/DESCRIPCIÓN DE LAS OBRAS

EGINGO DIREN LANEN ETA ERABILIKO DIREN MATERIALEN DESKRIBAPEN ZEHATZA:
DESCRIPCIÓN DETALLADA DE LOS TRABAJOS A REALIZAR Y MATERIALES A EMPLEAR:

.....

.....

.....

.....

AURREKONTUA (BEZ, gastu orokorrak eta industria-onura sartu gabe)

Presupuesto de ejecución material (no incluir IVA, gastos generales ni beneficio industrial)

€

Obras hasteko eguna/Fecha de inicio de las obras

Obrak bukatzeko aurreikusitako eguna/Fecha prevista de fin de obras

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA/DOCUMENTACIÓN QUE SE APORTA

Aurrekontua/presupuesto:

Etxebizitzen eta lokalen barruko eraberritze partziala/reforma interior parcial de vivienda y locales:

Egungo egoeraren eta nahi diren aldaketen plano eta krokisa (banaketak, instalazioak...)/plano ó croquis del estado actual y modificaciones que se pretenden realizar (distribuciones, instalaciones...)

Egurrezko egitura duten eraikinak: obra zuzendariaren izendapena/en edificios de estructura de madera: nombramiento del director de la obra.

**Obrak KONTENEDOREEN bidez BIDE PUBLIKOA OKUPATU beharra dakarrenean,
ondorengo atala bete beharko duzu
En caso de que la obra requiera OCUPACIÓN DE LA VÍA PÚBLICA mediante CONTENEDOR,
deberá cumplimentar el siguiente apartado.**

OKUPATUKO DEN TOKIA/LUGAR DE OCUPACIÓN

BIDE PUBLIKOA ZEREKIN OKUPATUKO DEN/OCUPACIÓN DE VÍA PÚBLICA MEDIANTE:

KONTENEDOREA/CONTENEDOR

Elementu kopurua adierazi:
Indicar nº de elementos:

Okupazioa hasteko eguna/Fecha de inicio de la ocupación

Okupazioa bukatzeko aurreikusitako eguna/Fecha prevista de fin de la ocupación

Goian aipatu diren obretarako lizentzia eskatzen dut.

Solicito licencia para las obras arriba indicadas.

Astigarraga, ____ (e)ko _____ (a)ren ____ (a)

Eskatzailearen sinadura/
Firma de la persona solicitante

Astigarragako Udalak egin nahi den obraren eta egingo den bide publikoaren kontenedore bidezko okupazioaz **INFORMAZIOA JASO DU**. Honekin batera, jakinarazten da hilabeteko epea (1) dagoela obra hasteko eta sei hilabetekoa (6) guztiz obrak bukatzeko/ **El Ayuntamiento de Astigarraga QUEDA INFORMADO de las obras citadas anteriormente, y de la ocupación de vía pública mediante contenedor, en su caso, comunicándole que dispone de un (1) mes para el comienzo y de seis (6) para la completa realización de las obras.**

EGINBIDEA/DILIGENCIA

Obra Txikiei buruzko Astigarragako Udal Ordenantzak dionarekin bat etorritz, udaleko Erregistro Orokorrak obren jakinerazpenaren inguruko ondorengo dokumentua igorri du, hirugarrenei kalterik egin gabe ematen dena eta, igorri den pertsonaren ardurapean, eta betiere jabedunaren baimena izanik obrak egiteko/ Conforme a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal sobre Obras de pequeña entidad del Excmo. Ayuntamiento de Astigarraga, el Registro General, libra el presente documento de Conocimiento de obra, que se otorga sin perjuicio de terceros, bajo la sola responsabilidad de la persona a la que se libra y siempre que se encuentre expresamente autorizada por el/la propietario/a de la finca para efectuar las obras señaladas.

Dokumentu hau ematen zaion eskatzailea, Obra Txikiei buruzko Astigarragako Udal Ordenantzak zehazten dituen baldintza guztiak betetzera behartua dago, baita gainontzeko arau eta ordenantza urbanistikoak ere/ la persona a la que se otorga el presente Documento viene obligada a cumplir todas las condiciones recogidas en la Ordenanza reguladora de las "obras de pequeña entidad", así como en las Ordenanzas Urbanísticas Municipales.

ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

ASTIGARRAGA,

Dokumentu honek Bulegoko zigilu eta dagokion ordain-agiririk gabe ez du inongo baliorik izango/Este documento caracerá de validez sin en sello de la Dependencia y el correspondiente justificante de pago.

- * **Etxebizitzaren barneko eraberritzeak, lurzoruak, sabaiak eta paramentuen bukaerak, konponketak edo berritzeak, ez diete eragingo barne espazioei (tabikeak)/**Las obras de reforma interior de viviendas, de reparación o renovación de terminaciones de suelos, techos o paramentos, **no deberán afectar** a las distribuciones de los espacios interiores (tabiques)
- * **Obren neurriek ez dituzte sekula Udalari jakinarazirikoak gaudituko, eta hirigintza mailako lege-haustetzat hartuko dira gehiegikeriak oro/**Las dimensiones de las obras no excederán de las comunicadas, considerándose como infracción urbanística cualquier extralimitación de las mismas.
- * **Obrak bideratzen ari direnean aldaketaren bat egiteko asmoa baldin badago, Udalari eman behar zaio horren berri/** Cuando se pretendan introducir modificaciones durante la ejecución de las obras, se deberá comunicar el hecho al Ayuntamiento
- * **Obrak bideratzean, derrigorrez konpondu beharko ditu bide publikoetan eta aldameneko espazioetan sor litezkeen kalteak, eta txukun mantendu behar ditu inguruak/**En la realización de los trabajos se estará obligado a reparar los desperfectos que, como consecuencia de las obras, se originen en las vías públicas y demás espacios colindantes, y a mantener éstos en condiciones

de limpieza.

- * **Igarotze-publikoa oztopatuko duen edozein aldamió, eskailera, makina, erraminta edo gailu jartzea guztiz debekatuta dago kale, plaza edo pasealutan/Quedará prohibido colocar en las calles, plazas y paseos, andamios, escaleras, máquinas, herramientas, útiles o instrumentos, así como cualquier clase de objetos y materiales de construcción que puedan entorpecer el tránsito público.**
- * **Kontenedoreak bide publikoan jartzeko berriz ondorengoak baldintzak bete beharko dira/en cuanto a la colocación del contenedor:**
 1. **Ezin izango du errepideen errodadura gunean sartu/no se podrá invadir la zona de rodadura de las carreteras/caminos.**
 2. **Ezin izango du oinezkoentzako bidean sartu; gutxienez 2m-ko zabalera duen pasabidea utzi beharko da/no se podrá invadir el paso de peatones; hay que dejar un paso de 2m de ancho.**
 3. **Ezin izango du errepidean ikuspena murriztu/no se podrá limitar la visibilidad de la carretera/camino.**
 4. **Ezin izango du berdegunean sartu, ezta zuhaitzen adaburu azpian jarri ere/ no se podrá invadir la zona verde, ni colocar el contenedor bajo las ramas de los árboles.**

Aurreikusi ez diren kasuetan azterketa zehatza egingo da/Para aquellos casos no contemplados, se estudiará su peculiaridad.

- * **Interesdunak eskura eduki beharko du dokumentu hau eta behartuta egongo da udal zerbitzuei edo/eta ikuskapenaren arduradun direnei erakustera horrela eskatuz gero/ El/la solicitante, o quien en el futuro le sucediera en la tenencia de este Documento vendrá obligado/a a exhibirlo siempre que le sea reclamado por el personal técnico o agentes encargados de la inspección de obras, incurriendo en caso de incumplimiento de este requerimiento en las responsabilidades consiguientes por desobediencia a los agentes de la autoridad.**

Astigarragako Udalak bere gain hartzen du fitxategi automatizatuan jasotako datuei buruz indarrean dagoen legeriak ezartzen duen isilekotasun-betebeharra betetzeko ardura. Era berean, izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duenari jarraiki eta gai honen inguruan aplika daitekeen gainerako arautegien arabera, erabiltzaileak edozein unetan erabili dezake datu horietara iristeko, zuzentzeko, indargabetzeko edota datuen horien aurka egiteko eskubidea, honako helbide honetan:

Astigarragako Udala
Foru enparantza, 13
20115 Astigarraga (Gipuzkoa)

El Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a cumplir la obligación de secreto respecto de los datos contenidos en el fichero automatizado establecida en la legislación aplicable. Asimismo, se informa al usuario de su facultad de ejercer en cualquier momento el derecho de acceso, rectificación, cancelación y, en su caso, oposición de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa aplicable al efecto dirigiéndose a: